



2022ko azaroaren 15ean INGURUMENeko ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DPTU.ko honako foru agindu hau eman da:

Donibaneko saneamendu (Pasaia) 1.Fasea: BonanzaSantiago proiektua jendaurreko informazioa. (FAOH189/22 29-OH)

Jakin dezazun eta dagozkion bidezko ondorioak izan ditzan igortzen dizut.

Donostia, departamentuko idazkari teknikoa

Alberto Arana



## FORU AGINDUA

AA/ig FAOH189/22 29-OH

Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste administrazio batzuekiko lankidetzeta-politikaren barruan, saneamenduko eta arazketako eskualde-sistemak garatzeko eta hobetzek helburua jasotzen da.

Ildo honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Pasaiako Udalak, Uraren Euskal Agentziak eta Añarbeko Uren Mankomunitateak Donibaneko Saneamenduaren finantziazioa bultzatzea erabaki dute.

Horretarako, eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusiaren enkarguz, IDOM, CONSULTING, ENGINEERING, ARCHITECTURE, S.A.U. enpresak 2022ko irailean idatzi du DONIBANEKO SANEAMENDU PROIEKTUA (PASAIA) 1. Fasea: BONANZA PASEALEKUA – SANTIAGO PLAZA, aurrekontua, guztira, 1.403.744,37 eurokoa da, BEZa barne, eta gauzatzeko epea zazpi hilabetekoa.

Donibaneko saneamenduaren konponbide integrala Puntas pasealekuan dagoen arkuen eraikinetik abiatzen da, eta Donibanen zehar igarotzen da, isurketa irisgarriak jasoz. Azkenik, Bizkaia plazaraino iristen da, eta bertan ponpatzeko eta Lezoko hondakin-urak ponpatzeko estaziora bultzatzeko esatazioa egingo da, gaur egun Añarbeko Urak ustiatzen duena. Zailtasun tekniko samarreko obra da, baina, batez ere, eragin sozial eta ekonomiko ugari ditu herrigunearentzat.

Espazio konplexuenetan obrak egitea bideragarria denez, zenbait zalantza sortu dira, eta, horregatik, egokitzat jo da proiektua xehatzea, eta lehenik eta behin, Bonanza pasealekuaren eta Santiago plazaren arteko kolektorea egitea, zailtasun gutxien dituen tartea baita. Horri esker, 2. Fasea gauzatzeko beharrezko hobekuntzak egin ahal izango dira, 1. Fasean lortutako esperientziaren arabera verme egokiekin.

Lehenengo fase honetan 250 metro inguruko kale-zatian saneamendua egitea aurreikusten da. Kolektoreak bereizteko sare bat egitea aurreikusten da, euri-urek zuzenean itsasora ihes egiten jarrai dezaten; ur beltzek, berriz, isurketak saneamendu orokorrarekin lotzen diren punturaino eramango dituzte.

Hodien sakonera handiak saihesteko, ponpaketa-estazioak tartekatu behar dira, bildutako emaria kota altuagoetara bultza dezaten. 1. Fasean, Bonanza pasealekua – Santiago plazan, lehen ponpaketa-putzua jartzea aurreikusten da (Bonanza ponpaketa), Bonanza pasealekutik Donibane kalearen hasierara bitarteko isurketak bultzatzeko, Bonanzako Santo Kristoren elizaren ondoan.

Saneamenduaz gain, proiektuan beste udal-zerbitzu batzuk ere sartzen dira, hala nola elektrizitatea, argiteria publikoa, telefonía eta edateko ura.

Era berean, eta obrekin neurri handi batean lehendik dagoen zoladura hautsiko denez, kaleak berriz urbanizatzea aurreikusi da.

Idatzitako proiektuaren edukia bat dator SPKLren 09/2017 Legearen 233. Artikuluan ezarritakoarekin – Proiektuen edukia eta hura egitearen ondoriozko erantzunkizuna.

Ondorioz idatzitako proiektua egokia dela eta proiektua gauzatzea komeni dela kontuan hartuta, DONIBANEKO SANEAMENDU PROIEKTUA (PASAIA) 1. Fasea: BONANZA PASEALEKUA – SANTIAGO PLAZA proiektua jendaurrean jartzeko izapidea hastea proposatzen da, obra horiekin kaltetutzat jotzen direnek bere erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Ondorioz, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuak

## EBAZTEN DU

**Lehenengo.-** DONIBANEKO SANEAMENDU PROIEKTUA (PASAIA) 1. Fasea: BONANZA PASEALEKUA – SANTIAGO PLAZA proiektuaren jendaurreko informaziorako eta entzunaldirako izapideak hastea.



**Bigarren.-** Aipatutako proiektua jendaurrean jartzea, hogeit hamar egun balioduneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

**Hirugarren.-** Proiektua agerian jartzea Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren bulegoetan, Foru Aldundiaren Jauregian –Gipuzkoa plaza z.g., Donostia–.

Horretarako, proiektua ikusgai egongo da [www.gipuzkoa.eus/eu/web/obrahidraulikoak](http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/obrahidraulikoak) web orrian, eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan.

**Laugarren.-** Pasaiaiko Udalari bakarkako jakinarazpena egitea, bere eskumenekin zerikusia duen administrazioa izanik.

Foru agindu hau ez da behin betikoa egintza administrazio bidean, eta, beraz, beronen aurka ezin da inolako errekurtsorik aurkeztu.

#### INGURUMENEO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO FORU DIPUTATUA

SIER6ed54437-60c5-4711-bded-2bc5212b172c



Egiatzen Kode Segurua: **FAEB44a88498-1f78-4574-b8cc-f182d0f46134**

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiatzen kode segurua egoitza elektronikoan: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Información pública proyecto saneamiento Donibane (Pasaia), 1ª Fase: Ps

Sinatzailea 1 / Firmante 1:

ARANA ROD, Alberto

Data / Fecha: 2022/11/15 13:59:19



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIER6ed54437-60c5-4711-bded-2bc5212b172c**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410>**

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410>***